



#mareaurdina

MAREA URDINA ELKARTEA

Aniztasun funtzionala duten pertsonen
inklusioren aldeko taldea

2019 URTEKO MEMORIA



AURKIBIDEA

1. ELKARTEAREN HELBURUA.....	3
2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK.....	4
3. PROIEKTU URDINAK.....	48


1. ELKARTEAREN HELBURUA

Helburua bakarra da, aniztasun funtzionala duten pertsonen INKLUSIOA (bai, letra larrietan). Inklusioa ez bakarrik eskolan, baita kirola, kultura eta aisi aldian ere. Gure bailarako aniztasun funtzionala duten pertsonak herrian sortzen diren aktibitate eta dinamika ezberdinetan leku bat izan dezaten egingo dugu lan, horretarako herriko agente eragile ezberdinei (udal, kirol elkarte, musika eskola, edozein ekimen...) inklusioaren “betaurrekoak” jartzen saiatuko gara.

Iaz Marea Urdinera “zertan lagundu dezaket?” galdera eginez gerturatzen zirenei “zer dakizu egiten?” galderarekin erantzuten genion. Hemendik aurrera gugana gerturatzen den orori “eta zuk/ek zer egin dezakezu/e inklusioaren alde?” galdetuko diogu.

Herrian sortzen den edozein egitasmo, ekintza, kirol, kurtso, jardunaldik... inklusioaren ikuspegia landua izatea nahiko genuke eta gure indarrak hor ipiniko ditugu.

Bestalde, badakigu batzuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen beharren arabera ezingo dugula edozein aktibitate edo ekintzetan parte hartu, kasu hauetan Marea Urdina Elkartea egokitutako iharduerak antolatzen saiatuko da.



Azkenik eta ez garrantzi gutxiago duelako, sentsibilizazio eta kontzientziazio ekimenak bultzatuko ditugu gure bailaran. Iazko Marea Urdinetik zerbait ikasi bagenuen sentsibilizazioa zela gizarte inklusibo bat eraikitzeko zimentu edo oinarria izan zen.



2. AURRERA ERAMANDAKO JARDUERAK

Marea Urdineko kideak 2019 urtean parte hartu duten jarduera INKLUSIBO, EGOKITUTAKO ekimen eta egin diren KONTZIENTZIAZIO ihardueren berri emango dugu hemen.

Zein helbururi egiten dion erreferentzia goiburuaren kolorearekin adieraziko dugu.

Jarduera arrunta

Egokitutako jarduera

Kontzientziazio jarduera

Informazio guzti hau ondorengo lekuetan aurkitu dezakezue:

- **Web orrian:** <https://www.mareaurdina.org/>
- **Facebook:** <https://www.facebook.com/mareaurdina2018>
- **Twitter:** <https://twitter.com/mareaurdina>
- **Instagram:** <https://www.instagram.com/mareaurdina/>
- **Blogger:** <https://mareaurdina.blogspot.com/>
- **Youtube:** <https://www.youtube.com/mareaurdina>



Floreaga Ikastetxean hitzaldia

Data: 2019-ko Urtarrila

[Florea Ikastetxea](#) izan ginen [Marea Urdina](#)-ri buruz hitzaldia ematen; Marea Urdina zer izan zen eta oraindik eta garrantzitsuagoa den zergaitik egin genuen azalduko diegu DBH-ko ikasleei.

Ikasle hauek etorkizuneko gizartea osatuko dutelako.

Aniztasuna eta inklusioan sentsibilisatutako gizarte bat eraikitzeko umeengan egin behar dugulako.



Instrumentu eta Dantza erakusketa

Data: 2019-ko Otsaila eta Martxo

Azkoitiako Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren urteroko ekintzen artean, garrantzitsuenetako bat musika tresna ezberdinen ezagupenaren inguruko ekintzak antolatzea da. Horretarako, Musika Eskolako ikasle eta irakasleen artean 6-7 urte bitarteko haurrei aurkeztuko dituzte familia ezberdinetako musika tresnak.

Musika Eskolan
2/2019/

Instrumentu eta Dantza erakusketa

Aktibitate inklusiboa izango da

Otsaileko egitaraua

KITARRA	• Otsailak 11 (Astelehena)..... 17:45- 18:30
AKORDEOIA	• Otsailak 12 (Asteartea) 17:15- 18:00
TXISTU	• Otsailak 13 (Asteazkena).....17:45- 18:30
TRONPETA /TRONBOIA	• Otsailak 14 (Osteguna) 17:15- 18:00
BONBARDINOIA/ TUBA	• Otsailak 18 (Astelehena)..... 17:45- 18:30
PERKUSIOA	• Otsailak 19 (asteartea)..... 17:15- 18:00
FLAUTA	• Otsailak 20 (Asteazkena).....17:45- 18:30
	• Otsailak 21 (Osteguna).....17:15- 18:00
	• Otsailak 25 (Astelehena)..... 17:45- 18:30
	• Otsailak 26 (Asteartea)..... 17:15- 18:00
	• Otsailak 27 (Asteazkena)..... 17:45- 18:30

Musika Eskolan
3/2019/

Instrumentu eta Dantza erakusketa

Aktibitate inklusiboa izango da

Martxoko egitaraua

BIOLINA	• Martxoak 6 (Asteazkena).....17:45- 18:30
KLARINETEA	• Martxoak 7 (Osteguna).....17:15- 18:00
SAXOFOIA	• Martxoak 11 (Astelehena)..... 17:45- 18:30
PIANOA	• Martxoak 26 (Asteartea) 17:15- 18:00
TRIKITXA/PANDEROA	• Martxoak 12 (Asteartea) 17:15- 18:00
DANTZA	• Martxoak 13 (Asteazkena).....17:45- 18:30
	• Martxoak 14 (Osteguna).....17:15- 18:00
	• Martxoak 20 (Asteazkena).....17:45- 18:30
	• Martxoak 21 (Osteguna).....17:15- 18:00
	• Martxoak 27 (Asteazkena)..... 17:45- 18:30
	• Otsailak 26 (Asteartea).....18:00- 18:45
	• Otsailak 28 (Osteguna).....18:00- 18:45

Aurten ekintza hau INKLUSIBOKI planteatu da, herriko aniztasun funtzionala duten umeak ongi etorriak izan dira instrumentu ezberdinak ezagutu eta probatzera, ume hauentzat aurrera begira instrumentu bat jotzen ikasteko lehenengo pauso bat izan daitezke larrik.

[Marea Urdinatik](#) Bizkargi Musika eta Dantza Eskola zoriondu nahi dugu, inklusioaren bidea luzea izan arren, horrelako pausoei hasten delako. Zorionak Bizkargi!



#URDINDU BAILARA

Data: 2019-ko Apirila

Apirilaren 2-an Autismoaren Nazioarteko Eguna izan zen, Marea Urdinetik #URDINDUBAILARA ekimena bultzatu genuen. Bideo honetan laburbildu dugu egun horretan gure bailarak eman zuen erantzun zoragarria.

Hemen ikusi dezakezue laburpen bideoa:



#URDINDUBAILARA

Zer da?
Apirilak 2 Autismoaren Nazioarteko Eguna URDINTZEKO iniziatiba bat da.

Nola hartu dezaket parte?
Edonork hartu dezake parte, bakoitzak bere aletxo URDINA ipiniz.

Eraikin handietan
Udaltxe, ikastetxe, kiroldegi, musika eskola, liburutegi...-etako fatxadan zerbait URDINA jarritz (kartel, ohial edo tela handi bat...).

Eraikin txikietan
Saltoki, supermerkatu, ludoteka, igerileku, taberna, KOTXE...-etako ate edo kristalean zerbait URDINA jarritz (adibidez folio urdin bat).

Banakako pertsonak
Pertsonen kasuan zerbait URDINA soinean eramanez (nikia, jertsea, belarritakoak, pultsera, azkazalak edo espainak pintatuta, oinetakoak,...).

Urdindu dezagun bailara!

I AUTISMORAKO DINAMIKA BERRIA

Animatu eta elkarbanatu zure argapila sare sozialetan #URDINDUBAILARA



Euskadiko Igeriketa Txapelketa

Data: 2019-ko Apirila

Larunbat arratsalde honetan Euskadiko Igeriketa Egokitutako Txapelketa ospatuko da Azpeitiko Igerilekuan. Zorionak Izarraitz Igeri Elkarteari aniztasun funtzionalaren alde egiten ari zareten lan guztiagatik. Animatu eta zatoz txapelketa ikustera!



Ibilgailu Klasikoen Topaketa Inklusiboa

Data: 2019-ko Maiatza

Aurtengo Azkoitiko Kotxe Klasikoen VIII Topaketa INKLUSIBOA planteatu dute antolatzaileek.

Marea Urdina Elkarte sortu zenean "eta zuk, zer egin dezakezu inklusioaren alde?" galdera bota genuen gizartera. Gutxiena espero genuen esparruetatik batzuek erantzuna eman digute: aurtengo Azkoitiko Kotxe Klasikoen Topaketa era INKLUSIBOAN antolatu dute.

11:00-tik 12:30-era egiten den errekorridoan parte hartzera gonbidatuak izan ginen Marea Urdineko partaideak eta zoragarri pasa zuten gure partaideek.

Mila mila esker Antonio, zu ere Marea Urdina zara!





Marea Urdinaren difusio kanpaina: TRIPTIKOA

Data: 2019-ko Apirila

Gizarteak eta batipat aniztasun funtzionala duten herritarrak Marea Urdina Elkartearen berri izan dezan (nor garen, zein diren gure helburuak, nola parte hartu edo kontaktatu gurekin...) difusio kanpaina bat jarri dugu martxan. Triptiko bat banatuko dugu behar bereziak dituztenei iristeko asmotan (anbulategi, zerbitzu sozialak, ikastetxeko orientatzaileak... izango dituzte eskuragarri).



Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA

Data: 2019-ko Maiatza

ZER DA?

Marea Urdinetik egiten dugun aitorpen edo errekonozimendu bat da.

NORI EMANGO DIOGU?

Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren alde egiten duten orori (elkarte/talde/egoitza/denda,...) "Marea Urdina naiz" eranskailu edo pegatina bat emango diegu beraien egoitzan sarrerari ipini dezaten.

ZER ESAN NAHI DU?

Horrela ANIZTASUNAREN LAGUN direla adieraziko dute eta behar bereziak dituzten pertsonak aurrez jakingo dute toki horretan ongi etorriak direla.



Bertan aniztasunaren laguna izateak dakarkien INKLUSIBITATEAREN DEKALOGOA zerrendatzen da, ziurtagiriaren jabea nolabait berau errespetatzera konprometituz.



ZER EGIN BEHAR DA ZIURTAGIRIA LORTZEKO?

Zure elkarte/talde/enpresa...-n ondorengo galdera egin behar duzu: "Eta gu zer gaude prest egitera inklusioaren alde?". Erantzuna aurkitzen duzunean jarri zaitez gurekin kontaktuan

Ikas Kirol Kross Inklusiboa

Data: 2019-ko Ekaina

Zoragarria aurtengo Ikaskirol Kross-ean bizi izan genuen Kirol Inklusiboko Festa! Zorionak eta milaesker hau egitea posible izan duzuen guztioi. Hurrengo urtean gehiago eta hobeto. Gora zuek!

Hemen ikusi dezakezue laburpen bideoa:



A Z K O I T I A

2019 XXXVII IKASKIROL KROSSA

9 EKAINAK 9 IGANDEA

BESTE MAILA GUZTIEN IRTEERA

IRTEERAK: PARRIKOA, SANTAKLARA, UROLA RAIA, UROLA URRA, UROLA TRUKA, UROLA HANDEA.

Maila

Maila	Itzulita metroetan	Irteera	Irteera	Irteera
HH04	Txiki bat (400 m)	Heska	11:25	
HH05	Txiki bat (400 m)	Heska	11:35	
LH 1	Txiki bat (550 m)	Heska	11:45	
LH 2	Txiki bat (550 m)	Heska	11:55	
LH 3	2 txiki (1.100 m)	Heska	11:55	
LH 4	2 txiki (1.100 m)	Heska	11:55	
LH 5	Txiki bat eta handi bat (1.550 m)	Heska-mutli	11:35	
LH 6	Txiki bat eta handi bat (1.550 m)	Heska-mutli	11:45	
DBH 1-2	Bi handi (2.000 m)	Heska-mutli	11:55	

12:30an
OFIZIALA txikiak (maila guztietan)
ordutegia
SAPi banaketa (jabe/informazio mailak)

Laguntzaileak:

ADARREK, NASTOLA, INDIARLAN, UROLA TRUKA, UROLA HANDEA, AZKOITIA



Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA: Zubiaurre Igeri Elkarte

Data: 2019-ko Ekaina

Ohore bat da guretzat [Zubiaurre Igeri Elkarte](#)-ri [Marea Urdina](#)ren lehen ziurtagiria ematea. Iraganean aniztasun funtzionala duten pertsonengatik egin dutenagaitik eta etorkizunerako hartu berri dituzten konpromezuegatik. ANIZTASUNAREN LAGUN zarete, gora zuek!



Zubiaurre I.E. aniztasunaren lagun

Inklusibitatearen dekalogo:

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik ikusten ditugu.
3. Pertsona osoari eskaintzen diogu arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen laguntzen dugu.
6. Irisgarritasuna bermatzen dugu.

ZIURTAGIRIA



ZIURTAGIRI ESKAERA

"ETA GU ZER GAUDE PREST EGITEKO INKLUSIOAREN ALDE?"

"ZUBIAURRE IGERIKETA KLUBA"-ren KONPROMEZUA

Zubiaurre Igeriketa Kluba Igeriketa erdigunea duten ekintzak bultzatzeko Aukaitiko herri ekimen bat da. Taldean egiten dugu lan eta herritarren beharrei erantzuteko konprometua dugu.

Jakintza gura halaber aniztasun funtzionalari dagokionean errealitate ugari eta anitzak ditugula begien aurrean, pertsonen kopuru adina hain zuzen ere. Baina ez ditugu denak ikusten, naiz eta begien aurrean izan egunero. Ertzak gure ikusmiratik kanpo daude, baxteregi gure errepertorio alal izateko. Gabezia hori erantzutea dator ondoko konprometua xumea bezain inmoa.

1. Antolatzen ditugun jarduerak, ikaslaro edo eta eguneroko ekintza ezberdinetan aniztasun funtzionalari erantzuteko beharrezkoak diren moldaketa eta baliabideak jartzen saiatuko gara.
2. Antolatzen ditugun ekintza irekietan (San Andres Saria, 100x100...), jardura inklusiboa dela eta aniztasun funtzionala duten edozein pertsona ongi etorria izango dela publikoki zabalduko dugu.
3. Herriko Marea Urdina Elkartearekin elkarlana sustatuko dugu igeriketaz gain herrian inklusibitate bultzatzeko eskatzen zaigun edozein ekimenetan.
4. Igeriketa itanik gure espazio naturala, aniztasunari erantzuteko beharrezkoak diren eskaera bideratzeko konprometua hartzen dugu, dena delakoa izanda ere beharizana.
5. Gure elkartearen maitasunarekin eta etapa horrek gizarte inklusioa jokatzen duen erantzuteko konprometua jabeturik, familiek elkarlanean umen beharizana sozialei erantzuteko abalegin onak egingo dugu.

Behar den tokian behar duenak jakin dezan

Arzobiztan 2019-ko Ekainaren 5ean

Zubiaurre Igeriketa Kluba



Kurtso bukaerako ekitaldi INKLUSIBOA

Data: 2019-ko Ekaina

Aurtengo Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako kurtso bukaerako ekitaldia INKLUSIBOA izango da. [Marea Urdin](#)ako kideak orkestra, abesbatza eta 4-5 urteko umeen dantza taldearekin batera "Oles Oles Lurra haserre dago" abestia interpretatuko dute. Mila esker! Zuek ere URDINAK zarete.



BIZKARGI
Musika eta Dantza Eskolako ikasleak

"emoziak"
JAIALDIA
🤔 😬 😊 😞 😏 😜
2018-19 Ikasturtea

Egilea:
Nerea Goikoetxea

Baztartxo Antzokian
Ekainak 14 Ostirala
19:00-tan

Zuzendaria:
Gorka Errezil

*JARDUERA INKLUSIBOA

AZKOITIA
Udala

AK
O
ZI
M
E

a
d
i
a
i
a
J

Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA: BIZKARGI MUSIKA ESKOLA

Data: 2019-ko Ekaina



BIZKARGI
musika eta dantza eskola
aniztasunaren lagun

Inklusibitatearen dekalogoak:

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik ikusten ditugu.
3. Pertsona osoari eskaintzen diogu arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen laguntzen dugu.
6. Irisgarritasuna bermatzen dugu.

ZIURTAGIRIA

Joan den ostiraleko ikasturte bukaerako ekitaldia aprobetxatu genuen Bizkargi Musika eta Dantza Eskolari “Marea Urdina Naiz” Ziurtagiria emateko. Aniztasun funtzionala duten pertsonen alde egindakoagatik, ostiralean egin zuenagatik eta etorkizunerako konpromezuengatik. Zuek ere URDINAK zarete.



Maxikatzan



Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA: FLOREAGA IKASTETXEA

Data: 2019-ko Ekaina

Zoragarria atzo [Floreaga Ikastetxearen](#) kurtso bukaerako jaialdia, LH1-eko umeek [Marea Urdinaren](#) abestia dantzatu zuten koreografia propioarekin. Ez genuen aukera hau galdu nahi eta Marea Urdinetik Floreaga Ikastetxeari “Marea Urdina Naiz” ziurtagiria emateko aprobetxatu nahi izan genuen, guraso, irakasle eta umeen aurrean.



Ziurtagiriaren eskaera egiterakoan inklusioaren alde orain arte egin dutena eta etorkizunerako hartu duten konpromezu trinkoaren errekonozimendu gisa. Gora zuek! Zuek ere URDINAK zarete!




Floreaga Ikastetxea aniztasunaren lagun

Inklusibitatearen dekalogoia:

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik ikusten ditugu.
3. Pertsona osoari eskaintzen diogu arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen laguntzen dugu.
6. Irigarritasuna bermatzen dugu.




ZIURTAGIRI ESKAERA

“ETA GU ZER GAUDE PREST EGITEKO INKLUSIOAREN ALDE?”

“Floreaga Salestar Ikastetxea”ren KONPROMEZUA

Floreaga Salestar Ikastetxearen komunitatea osatzen dugun guztiok, gure ikasleak bere osotasunean gauzatzeko ahaleginean oinarritzen dugu gure jarduna, edozein dela bereen kondizio, sinismen edo kultura. Berezi, zentratzen gara habegabeagoak/zaugarriagoak izan daitezkeenengan; eta, nola ez, dibertsitate funtzional ezberdina izan dezaketen edozein haur edo nerabe, ongietorriak izaten dira beti gurea.

Eskola inklusiboa erreferente izanda badakigu gure eguneroko jardunean alderdi asko konstante hartu behar ditugula. Izan ere, eskola inklusiboa sare bat da, denon artean erailkia eta guztiontzako eskola aproposa lortzen duena. Zenbat eta alderdi gehiagozatiak jardunaldi berean helburu bera lortzeko, hainbat eta sendagoa izango da gure ahalegina. Haur horrela izanda, sinesten dugu, zure kide beretik ari garelako lanarekin eta egia ditzakegun hobeak izateko iriaki gaude. Denon artean, elkarlanean, gizarte sensibiltzatuago baten benetako errealitatea dugu helburu, non guztion etazgarritasunak, errespetuak jarraia den oinarri. Era honetara, aniztasunak dakarren aberastasuna indartuz eta gizartearen gauzatzea.

Aurten gure ikastetxean, zenbat ekintza burutu izan ditugu dibertsitate mota ezberdinen ikusgarritasuna lantzeko eta datorren ikasturterako badiugu beste batzuk. Hemen dituzue:

- 2018-19 ikasturtea:
 - DBHko ikasleei zuzendutako ekitaldia Marea Urdineko kideen eskutik.
 - Martxoak 21: Down Sindromearen Nazioarteko Eguna.** Egunon bereziak, sensibiltzazio bideoak eta gaitzterik mardotzea eta esposatzea.

Hemen erabiltzeko materiala:

<https://www.youtube.com/watch?v=W8RQqq60Cs&feature=youtu.be>

<https://sites.google.com/site/hezkidetzaadibhalmareadiaz/efemerideak-elementides/martxoak-21/sindrome-down-eguna>

<https://youtu.be/Ja-q4OnBtU>

<https://youtu.be/DDrKciZIX0>

<https://youtu.be/Onk0RWaQ8>

<https://youtu.be/9VguVLLP-4c>



Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA: IRAURGI IKASTETXEA

Data: 2019-ko Ekaina

Aspalditik geneukan [Iraurgi Ikastetxeari](#) bi urte hauetan [Marea Urdinagaitik](#) egin duen guztiagatik eskertzeko gogoia eta atzo iruditu zitzaigun zela egunik aproposena. Irakasle, guraso eta ikasleen aurrean nahi genien gure esker ona azaldu, bi urte hauetan inklusioa eta aniztasunaren alde egin duten guztia errekonozimendu gisa “Marea Urdina Naiz” ziurtagiria emanaz.



Dudarik gabe, Iraurgiko irakasle, ikasle eta gurasoak Marea Urdina zarete! Gora zuek!



Iraurgi Ikastetxea aniztasunaren lagun

Inklusibitatearen dekalogoia:

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik ikusten ditugu.
3. Pertsona osoari eskaintzen diogu arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen laguntzen dugu.
6. Irisgarritasuna bermatzen dugu.



MAREA URDINA

ETA GU ZER GAUDE PREST EGITERA INKLUSIOAREN ALDE?

IRAURGI IKASTETXEAREN KONPROMEZUA

Gure gizartea anitza den bezala, gure Ikastetxea ere, anitza da. Horren adibide dira gure hezkuntza komunitatean ditugun familia eredu desberdinak, desgaitasun oro dituzten pertsonak, ballabide urrikoak, sinesmen desberdinetako herritarrek nahiz atzerriarrak errespetatu eta beraien hazkuntzan bidelagun izatea da gure ikastetxeko helburu nagusia. Horren adierazle da gure ikastetxeko aurtengo leloa “Gu Geu izateko bidea”.

Aniztasun horri guztiari lekua egin behar zaila da, gure ikastetxeko partaideok, gure egunerokotasunean inklusibitateari erantzuna eta indarra ematen saiatzen gara.

Eguneroko jardueraz gain, ekintza anitz burutu ditugu bi ikasturte hauetan:

17-18 ikasturtean

- Geletan sentsibilizazio saioak, adinari eta taldeko aniztasunari egokituak.
- Ikastetxe osoari egitasmoaren berri eman eta ekintza sinbolikoa egin.
- Honako testua sortu eta ekitaldian irakurri. ***testua atxikituta.**
- Ekitaldirako ikastetxea girotu eta apaindu.

18-19 ikasturtean

- Autismoaren Nazioarteko Egunaren harira, geletan sentsibilizazio saioak, adinari eta taldeko aniztasunari egokituak. Ikastetxean ezaugarri hauek dituzten ikasleak izanik, berauek gonbidatu ziren taldean sentsibilizazio saioan parte hartzera.
- Ekitaldirako ikastetxea urdindu.
- Iraurgi Asteari bukaera emateko denen artean Marea Urdinaren kantarekin dantzatu.

Etorkizunean ere, gure konpromezua ildo berdinetik inklusibitatearen alde eta zuekin lankidetzan estuan jarraitzea izango da. Aldi berean, sinesmen hori gizartera zabaltzea izango da gure erronka nagusia. Horretarako argi dugu gure ikasleak norbanako oso eta bakar moduan hazi eta hezi behar ditugula, gizarteko partaide aktibo eta aberasgarriak izateko.



Jolas parke inklusiboak: KIMU BAT

Data: 2019-ko Ekaina

Plazer bat zuekin egon izana eta inklusioaren aurrean duzuen jarrera irekia ezagutzea. Dударik gabe harremanetan jarraituko dugu.



Elkargunearen irrisgarritasuna hobetzeko proiektua

Data: 2019-ko Uztaila

Marea Urdina Elkarteko Inma Urteagak bere alaba Ursula igerilekura ematen duen bakoitzean egin beharrekoa azalduz Azkoitiko Udal Igerilekuko Irisgarritasuna aztertzen du Instalakuntza Duinak Orain taldeak egindako bideo honetan. Irisgarritasun Unibertsala duen



Udal Igerileku bat nahi dugulako, denonak diren instalazioak denontzat nahi ditugulako. Gora zuek! Zuek ere URDINAK ZARETE!



Marea Urdina Getaria-Zarautz Itsas zeharkaldiaren laguntzaileak

Data: 2019-ko Uztaila

Mila esker [Travesia Getaria-Zarautz Itsas Zeharkaldia](#)-ko antolatzaileei [Marea Urdina](#) laguntzaile bezala kontsideratzeagaitik, ohore bat da guretzat. Zuek ere URDIN!





San Inazio festa inklusiboak: #BARRAKAURDINAK

Data: 2019-ko Uztaila

Zoragarria Azpeitiko Udalaren ekimena aniztasun funtzionala duten umeentzat aurtengo Saninazioak inklusiboagoak izateko. Entzutezko hipersentsibilitatea duten umeek (tartean autismoa dutenak) barraketaz gozatzeko aukera izan dezaten bi arratsalde "musikarik gabe" izango dira. Hori gutxi balitz, aniztasun funtzionala duten umei ilada luzeetan egon beharra ekidingo zaie, barraketarako sarreretara lehentasuna emanez.

Gora Saninazio inklusiboak!



Medioetan (ikusi bideoak):





Andre Mari festa inklusiboak: #BARRAKAURDINAK

Data: 2019-ko Abuztua

Zoragarria [Azkoitiko Udalaren](#) ekimena aniztasun funtzionala duten umeentzat aurtengo Andremaxek inklusiboagoak izateko. Entzutezko hipersentsibiltatea duten umeek (tartean autismoa dutenak) barraketaz gozatzeko aukera izan dezaten ARRATSALDERO ORDU BAT (18:00tatik 19:00-ra) "musikarik gabe" izango da. Hori gutxi balitz, aniztasun funtzionala duten umeei ilada luzeetan egon beharra ekidingo zaie, barraketarako sarreretara lehentasuna emanaz. Gora AndreMari inklusiboak! Gora Azkoitia!





Duchenne kontzientziaraziorako Nazioarteko Eguna

Data: 2019-ko Iraila

Irailak 7a Duchenne-ren Kontzientziaraziorako Nazioarteko Eguna da. Gure kide den Iren-ek (Azpeitiarra, 8 urte) nahasmendu honi aurre egiten ari da ausardia handiz. [Marea Urdina](#)tik gure babes osoa eman nahi diogu Iren eta bere familiari eta horretarako gure kolore “URDINA” alde batera utzi eta “GORRIZ” jantzi gara, bai, GORRIA delako Duchenne duten pertsonen alde egiteko kolorea eta gure bailara GORRIZ PIZTEA nahi dugulako IRAILAREN 7-a. GORRIZTATU ZAITEZ ZU ERE!



Laburpen bideoa hemen:



#GORRIZTATUZAITEZ

IRAILAK 7-an

Duchenne duten pertsonen zure babesa eman nahi?

Bi aukera dituzu:

- 1. Elkarteratzea**
Non: Azpeitiko Plazan
Noiz: 20:30-tan (Merkatu Plazan argi gorriak piztu arte)
*Zerbait gorria ekarri jantzita
- 2. Gorriztatu zaitez**
Zerbait gorria jantzi ezazu egun horretan soinean (nikia, prakak, zapatilak,...), argazki bat atera eta bidali iezaiguzu Marea Urdina-ra.

Eman zure babesa IREN-i!

DUCHENNE AWARENESS DAY
7 sept

Animatu eta elkarbanatu zure argazkia sare sozialetan
#GORRIZTATUZAITEZ





Asteburu SOLIDARIOA Azkoitian

Data: 2019-ko Iraila

Gaur 18:00-tan Azkoitiko Elkargunean Ttipi-Ttapako gure lagunek Irailaren 28-an egingo duten Marea Urdinaren aldeko Lasterketa Solidarioa-ren aurkezpena egingo dute. Gora zuek! Plisti plasta Marea Urdinarekin! Zuek ere OLATU! Gu ere han izango gara.

2019ko irailaren 28an
III. LASTERKETA SOLIDARIO INKLUSIBOA
Aurten MAREA URDINAren alde

27 IRAILAK AZKOITIA

19:00 **BAZARTXO**

28 IRAILAK AZKOITIA

10:00 **TIPIT-TTAPA**

11:00 **TIPIT-TTAPA**

12:00 **TIPIT-TTAPA**

16:30 **TIPIT-TTAPA**

17:00 **TIPIT-TTAPA**

18:00 **TIPIT-TTAPA**

19:00 **TIPIT-TTAPA**

IZEN EMATEA:

- www.azkoitia.eus
- Azkoitiko Udaletxean
- Torre Zuri erakusketa aurrean

Irailaren 16, 18, 23, 24, 25, 26 eta 27an
Irailaren 14 eta 21 Eliz Ataria

Umeak: 3 euro
Helduak: 10 euro
Egun bertan: 15 euro

Jasotako diru guztia MAREA URDINA ELKARTEari emango zaio

27 Y 28 TORRE-ZURIN

2019ko irailaren 28an
III. LASTERKETA SOLIDARIO INKLUSIBOA
Aurten MAREA URDINAren alde

Irailaren 27a, ostirala

19:00etan Bazartxo antzokian **MAREA URDINA FILMA**ren **AURKEZPENA**

Irailaren 28a, larunbata

10:00etatik aurrera **DORSAL BANAKETA**

11:00etatik aurrera **ABARKETATXO LUDOTEKA**ren eskutik **HAURRENTZAKO JOLASAK**

12:30ean **UROLATARRAK TXARANGAREKIN KALEJIRA**

16:30etatik aurrera **DJ ANIMAZIOA**

17:00etan **UMEEN LASTERKETA**
7 urte arte 400 m
7tik 10 urtera 800 m
10etik 12 urtera 1.200 m

18:00etan **HELDUEN LASTERKETA**
13 urtetik aurrera 4 km OINEZ edo KORRIKA

19:00etan **OPARIEN ZOZKETA** eta **JAIAREN ITXIERA**
(Saria jasotzeko bertan egon behar da)

Asteburu osoan **MAREA URDINA**ren eskutik **TORRE-ZURIN SENSIBILIZAZIO ERAKUSKETA**

IZEN EMATEA:

- www.azkoitia.eus
- Azkoitiko Udaletxean
- Torre Zuri erakusketa aurrean

Irailaren 16, 18, 23, 24, 25, 26 eta 27an
Irailaren 14 eta 21 Eliz Ataria

Umeak: 3 euro
Helduak: 10 euro
Egun bertan: 15 euro

Jasotako diru guztia MAREA URDINA ELKARTEari emango zaio





Asteburu SOLIDARIOA Azkoitian: MAREA URDINA FILMA

Data: 2019-ko Iraila

KARTELA egiten dugu publiko.


Hauxe ba kartelaren azalpena:

-Alde batetik Marea Urdinaren hasiera erreflejatuta nahi genuen, ilusioa, ziurgabetasunak, konpromezua... sentipen guzti horiek Saturraraneko hasieran sentitu genuen, hortik fondoan dagoen argazkia.

-Beste aldetik Marea Urdina zer izan dan adierazi nahi genuen, milaka pertsonen babesa, milaka pertsona Marea Urdina Naiz esaten eta egitasmoa "bere" bezala hartzen, horregaitik jaso ditugun argazki guztiekin mosaiko bat osatu dugu.

-Eta bukatzeko, esaldi batekin geratu ginen iaz.

Esaldi hori Azkoitiko pertsona oso berezi batek esan zigun Marea Urdina hasi genuenean eta denborak arrazoia eman dio.



Ostirala 27-an bete ditzagun Baztartzoko 600 eserlekuak!





#mareaurdina

Asteburu SOLIDARIOA Azkoitian: EZAGUTU NAZAZU ERAKUSKETA

Data: 2019-ko Iraila

Datorren asteburuan Irailak 28/29 Torre Zurin (Azkoitiko Plaza Nagusia) "EZAGUTU NAZAZU" erakusketa jarriko dugu ikusgai.

Helburua bikoitza:

1. Gure bailaran bizi garen aniztasun funtzionala dugun pertsonen istorioa eta historia ezagutaraztea
2. Ikusleen artean jakinmina sortzea.


Gerturatu zaitetz eta EZAGUTU GAITZAZU, zure herrikideak gara.

EZAGUTU NAZAZU erakusketa

Torre Zurin

Irailak 28 10:00-14:30
16:30-20:00

Irailak 29
11:30-14:30
18:00-20:30





Asteburu SOLIDARIOA: LASTERKETA SOLIDARIOA

Data: 2019-ko Iraila

Mila mila esker Ttipi-ttapari eta nola ez Azkoitiarrei asteburu honetan jaso dugun babesarengatik. Benetan gertu sentitu zaituztegu eta horrek, horrek lanean aurrera jarraitzeko indarra ematen digu. Gora Ttipi-ttapa! Gora Azkoitia!

Ikus laburpen bideoa:





Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA: TTIPI TTAPA

Data: 2019-ko Iraila

Ezingo dugu sekula eskertu Ttipi Ttapak antolatu zuen larunbat zoragarri hura, herri bat batu zuen egitasmo benetan inklusibo bat aurrera eramateko eta dena Marea Urdinaren alde. Zer gutxiago gure aldetik horren errekonozimendua eman baino? Dударик gabe ANIZTASUNAREN LAGUN zarete





Ttipi Ttapa aniztasunaren lagun

Inklusibitatearen dekalogo:

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik ikusten ditugu.
3. Pertsona osoari eskaintzen diogu arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen laguntzen dugu.
6. Irisgarritasuna bermatzen dugu.

ZIURTAGIRIA



Asteburu SOLIDARIOA Azpeitian

Data: 2019-ko Urria

Datorren asteburuan Marea Urdinaren sentsibilizazio asteburua izango da Azpeitian, hainbat ekitaldi ditugu programaturik horretarako. Hona hemen egitaraua:

2019-ko Urriak 11, 12 eta 13an
SENSIBILIZAZIO
ASTEBURUA

AZPEITIAN

MAREA URDINA-ren eskutik

Urriak 11, ostirala

19:00etan Soreasu antzokian
MAREA URDINA-ren FILMA

Urriak 12, larunbata

11:00etan Sanagustinpen "Luan
AUTISMOA duen haur berezia"
liburuaren aurkezpena

11:30etan Sanagustinpen
"EZAGUTU NAZAZU"
erakusketaren aurkezpena

17:00etan zezen plazan Zezen
Beltz-en eskutik "Grand Prix"
solidarioa

Urriaren 9-etik 14-era Sanagustinpen
"EZAGUTU NAZAZU" sentsibilizazio
erakusketa

#mareaurdina

azpeitikoudata
denon artean

Sanagustin
kulturgunea

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatiba



Asteburu SOLIDARIOA Azpeitian: MAREA URDINA FILMA

Data: 2019-ko Urria


Iritsi da eguna, gaur arratsaldeko 19:00-tan estreinatuko da Azpeitiko Soreasu Antzokian [Marea Urdina](#) Filma eta DOHAIN IZANGO DA. Oraingo honetan bi berrikuntza izango ditu filmak:

1. Azpituatua izango da. Helburua: behar bereziak dituzten pertsonak (entzumen arazoak dituztenak batipat) filma ondo ulertzea.
2. Filmak utziko digun emozio zurrunbiloa baretzeko eta irrifar eder batekin bukatzeko, "TOMA FALTSUAK" atal bat erantsi diogu. Barre egitea sana bada, norbere buruangaetik barre egitea oraindik eta osasungarriagoa delako.

Zatoz Soreasura gaur arratsaldean! 547 eserleku ditugu betetzeko.

Zu ere MAREA URDINA bait zara.

Hona hemen Azkoitiko emanaldiaren erreakzio batzuk:



Marea Urdina dokumentalak sortu dizkigun sententzioak

Iritsi da azkenean Marea Urdina dokumentala ikusteko aukera. Zerbait handia izango zelakoan eseri ginen mukuru betetako Batzarreko Antzokiko aulkietan: urduri, sentikor, baina batez ere, hunkituta. Eta asebate gintuen emanaldiak. Lagunarteko burutazio soila izan zenak, aurreikusitako helburu denak gainditu ditu, eta autismoarekiko sentsibilizazio kanpaina gisa hasitakoak, denok aho batez hartzu gaitu.

Harri bat uretara botatz gero, olatua sortzen duela dio dokumentaleko ahots batek. Agian, dezenteko "harrikada" eduki behar da horrelako egitasmoa pentsatu eta aurrera eramateko. Baina "harrikada" horrek olatu soila ordez, "normaltasuna" oinarritutako duen gizarteak sustaia dardaraz jarri ditu. Eta hain handia izan da lurrikara, non olatuaren ordez tsunamia sortarazi duen: Marea Urdina izeneko olatu erraldoia.

Ikusizunaren hasieran, mundua su txikiz osatuta dagoela esaten da: pertsona bakoitzak bere argia duela, denak desberdinak eta bereziak. Alabaina, bizi garen gizarte indibidualista eta egoista hau normalitatea bada. Jokamolde eta itaeren homogeneotasuna bilatzen da: bakoitzaren ezaugarriak ostentzen dituen molde ilun eta bakarra hobetsiz, zeinetatik at aurkitzen dena normaltasunetik kanpo ikusten den, gizartetik landa eta baztertua. Haatik, sortu berri den Marea honek, normaren orban ezaba dezake eta pertsona bakoitzaren ezaugarriak pizten dituen su printzak agerian utzi: distiratsa.

Dagoeneko begirada urrutirantz dugu, eta Marea Urdinaren olatu erraldoiak hunkituta, bi masailak busti zaizkigu.

Guraso batzuen partez, mila esker, Marea Urdina!!!





Asteburu SOLIDARIOA Azpeitian: EZAGUTU NAZAZU ERAKUSKETA

Data: 2019-ko Urria

Gaurtik hasita eta iganderarte Azpeitiko [Sanagustin Kulturagunean](#) “EZAGUTU NAZAZU” erakusketa jarriko dugu ikusgai.

Helburu bikoitzarekin:

1. Gure bailaran bizi garen aniztasun funtzionala dugun pertsonen istorioa eta historia ezagutaraztea
2. Ikusleen artean jakinmina sortzea.

Gerturatu zaitez eta EZAGUTU GAITZAZU, zure herrikideak gara.





Asteburu SOLIDARIOA Azpeitian: LIBURUAREN AURKEZPEN

Data: 2019-ko Urria

Gogoratu, gaur agenda ekintzaz beteta dugu Marea Urdinean:

-11:00-tan Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean "Luan, autismoa duen haur berezia" liburuaren aurkezpena.

IPUIA + UNITATE DIDAKTIKOA

AURKEZPEN

LUAN, AUTISMOA DUEN HAUR BEREZIA
LOUISE DESIREE FLORINDO

Urriak 12. 11:00 etan

Sanagustin Kulturgunea (Kulturaz Azpeitia)
Plaza Nagusia, 5





Asteburu SOLIDARIOA Azpeitian: GRAN PRIX SOLIDARIOA

Data: 2019-ko Urria

Zoragarria izan da Zezenbeltzekin izan dugun elkarlana eta ohore bat aurtengo Grand Prix-ean parte hartzea. Gure taldekide de Iren-ek duen gaixotasunaren sendabidea bilatzeko ikerketaren alde herriak izan duen eskuzabaltasuna ez dugu sekula ahaztuko, harro gaude gure bailarataz, harro Azpeitiar eta Azkoitiar izateaz. Mila mila esker, dudarik gabe zuek ere Marea Urdina zarete! Gora zuek!



Ikus laburpen bideoa hemen:





Marea Urdina Naiz ZIURTAGIRIA: IZARRAITZ IGERI ELKARTEA

Data: 2019-ko Urria

Pasa den astean, [Izarraitz Igeri Elkarteari](#) [Marea Urdinaren](#) Ziurtagiria eman genion, Azpeitian ematen dugun lehena. Izarraitzek azken urte hauetan inklusioagaitik egin duen lanaren errekonozimendu bezala: igeriketa egokitutako taldea ekipoa integratu dute, Marea Urdinan parte aktiboa izan dute, Gipuzkoako Igeriketa Egokituko Txapelketa eta Euskadiko antolatu zituzten, KOZ (Kirol Orientazio Zerbitzua)...

Aniztasunaren lagun zaretela garbi utzi duzue. Gora zuek! Zuek ere URDINAK zarete!



Izarraitz I.E. aniztasunaren lagun

Inklusibitatearen dekalogo:

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik ikusten ditugu.
3. Pertsona osoari eskaintzen diogu arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen laguntzen dugu.
6. Irisgarritasuna bermatzen dugu.

ZIURTAGIRIA





Obra Sozial Caixak dohantzan emandako mendirako aulki egokitua

Data: 2019-ko Urria

Milaesker Azkoitiko Caixa-ri eta bertako langileei Marea Urdinagaitik egiten ari zareten lanagaitik. Oraingo honetan Joëlette aulkia dohantzan eman digutelako, mendira joan nahi eta ez gaitasun batengatik ezin duen edonorentzat izan daiteke baliagarri.

Marea Urdinatik aulki hau herritar

guztien eskura utzi nahi dugu (mendizale elkarte, ikastetxe, guraso elkarte, familia,...), herritik jasotzen dugun babesari bueltatu nahi diogulagu.

Zuek ere URDIN!



Hemen laburpen bideoa:





Data: 2019-ko Urria

Inklusioaren bide luzean lehenengo pausoa sensibilizazioa delako, horretan jarraituko dugu. Herritik jaso duguna, herriari bueltan emango diogulako.

Kros Mixto Solidarioa

Data: 2019-ko Azaroa

Zorionak Ikasberriri aurtengo Kros Mixtoari eman diozuen ikuspuntu berriagatik. Aurten egingo den lasterketa INKLUSIBOA izango da, aniztasun funtzionala duen pertsona orok parte hartu izan ahalko du, bakoitzak nahi eta ahal duen neurrian (korrika, oinez, kilometro bat, bi...)

Marea Urdinatik parte hartzera animatu nahi zaituztegu, egin dezagun aurtengo



Kros Mixtoa inklusioaren festa!

ADI! Lasterketa eguenan 16:00-tik 17:00-ra Marea Urdinak sensibilizazio aktibitateak antolatuko ditu haur eta gurasoentzat, animatu eta zatozte parte hartzera! Egitaraua aurrerago zehaztuko dugu.





Laburpen bideoa hemen ikusgai:





Sensibilizazio jolasak Azpeitian

Data: 2019-ko Azaroa

Datorren Larunbatean Azaroak 16-an 17:00-tan Kros Mixtoa ospatuko da Azpeitiko kaleetan zehar, dakizuen bezala antolatzaileen aldetik lasterketa anitz, herrikoi eta inklusibo bezala planteatu da. [Marea Urdin](#)atik parte hartzetik haratago joatea nahi dugu, egun hori inklusibitatea lantzeko aproposa deritzogu eta horregaitik 16:00-tik 17:00-ra Sentsibilizazio Aktibitateak antolatuko ditugu ume eta helduentzat. Zer diren aktibitate horiek? Zatoz parte hartzera!

MAREA URDINA
-ren eskutik

**#mareaurdina naiz**

SENSIBILIZAZIO JOLASAK

AZPEITIKO PLAZAN

Azaroak 16, larunbata

16:00-tatik 17:00tara "SENTSIBILIZAZIO JOLASAK" Azpeitiko plazan:



- Gorpildun aulkiarekin SLALOM-a
- Esku batekin "nocilla bokata" prestatzea
- Keinuen hitzuntzan "telefonillo" jolasa
- Muletekin oskol bilketa
- Hankarekin edo ahoarekin marraztea
- Itxututa formen kaxan piezak sartzea



Hemen laburpen bideoa:





Iraurgi ikastetxean sentsibilizazio saioa

Data: 2019-ko Azaroa

Orain dela aste batzuk Iraurgi Ikastetxea-ra joan ginen Marea Urdina zer den bertako umeei azaltzera. Hemen duzue bertan bizitako momentuen laburpen bideoa, zoragarri pasa genuen!

Iraurgi, dudarik gabe zuek ere Marea Urdina zarete!

Hemen bideoa ikusgai:



San Andres Igeriketa Saria

Data: 2019-ko Azaroa

Pasa berri dugu Kros Mixtoa eta beste egitasmo INKLUSIBO baten atarian gaude. Datorren larunbatean Azaroak 23 San Andres Igeriketa Saria ospatuko da Azkoitian. Azpimarratu nahi dugu konbokatoria IREKIA dela, ez da igeriketan ibilitzen direnentzat bakarrik eta gainera INKLUSIBOA izango da, aniztasun funtzionala duten umeak ongi etorriak izango dira. Animatu zaitetz!

San Andres Saria

Azkoitiko Elkargunean

Azaroak 23 Larunbata

15:00 Jolasak

16:00 Igeriketa Frogak

2008-tik 2011-era jaioetako umeentzako

Jarduera
Inklusiboa

Animatu
zaitetz!



Aniztasun funtzionala duten
umeak ongietorriak izango dira



Hemen ikusi dezakezu laburpen bideoa:



San Andres festa inklusiboak: #BARRAKAURDINAK

Data: 2019-ko Azaroa

San Andres egunean musika
kenduko dute barraketan,
festak inklusiboagoak izan
daitezen

Andramarietan hasitako
bideari jarraituz, San Andres
festak ere inklusiboagoak
izan daitezen hainbat neurri
hartu du Udalak. Alde
batetik, larunbatean, San
Andres egunean, musika



kenduko dute barraketan 17:00etatik 19:00etara bitartean, entzumen-hipersentiberetasuna duten
pertsonei "ahalik eta baldintza onenak" bermatzeko. Adierazi dutenez, Marea Urdina elkartearekin
adostu dute neurria.

Beste aldetik, aniztasun funtzionala duten pertsonentzat txartelak banatuko dizkiete datozen
egunetan, barraketan ilaran egon beharrik izan ez dezaten. Txartel horiek dagoeneko eskuragarri
daude, udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan, 07:30etik 15:30era artean.

Udalak adierazi duenez, neurrian helburua da aniztasun funtzionala duten pertsonen "festez
gozatzeko aukerak erraztea" eta andramarietan hasitako bideari "normaltasuna eta jarraipena"
ematea.



Laburpen bideoa:



Euskadi Irratian Elkarrizketa:





2020 MAREA URDINA EGUTEGIA

Data: 2019-ko Abendua

Bereziki gaur, Abenduak 3 Ez Gaitasunaren Nazioarteko Egunean, berri zoragarri batekin gatoz.

Aurreratu genizuen bezala 2020-rako zerbait oso berezia prestatzen ari ginen, urte osoan aniztasun funtzionala duten pertsonak (zuen herrikideak) oso gertu izateko zerbait sortu nahi genuen eta horrelaxe 2020-ko Marea Urdina Egutegia bukatu berri dugu.



Helburua, sentsibilizazioa

Egutegiaren helburua bakarra da, sentsibilizazioa. Urtean zehar aniztasuna herritarrengandik gertu izatea du helburu, pertsona hauek gertukoak bait dira, bertakoak.



egutegiko argazkiak ateratzen saioetako bat

12 hilabete, 12 pertsona anitz

Aurreko publikazio batetan komentatu genuen bezala, 2020 urteak hilabete oso bereziak izango ditu, hilabete bakoitzean bailarako aniztasun funtzionala duen pertsona bat izango da protagonista, bertan izango ditugu: Xuban, Ane, Luan, Iren, Ursula, Alex, Luken, Nora, Andoni, Jone, Gotzon eta Igor.

Hamabi pertsona, hamabi aniztasun, hamabi herrikide, hamabi lagun, hamabi eskolako gelakide, hamabi familiarterko, hamabi ezagun,... seguru batzuk gertukoak dituzuela, bertakoak bait dira.





Hilabete bakoitzean esaldi berezi bat

Hilabete bakoitzaren goiburuan esaldi bat idatzi dugu, ez da edozein esaldi. Esaldi hau Urrian egin genuen “Ezagutu nazazu” erakustaldian jendeak idatzi zituen komentarioetako batzuk dira. Denak oso esanguratsuak, bihotzetik idatziak, denak oso oso bereziak, hilabeteko pertsonaiak bezalaxe.



Urtarrileko esaldia

Bukaeran, urteko laburpena

Eta egutegiaren bukaeran, azkenengo bi orriak, Marea Urdinak urtean zehar aurrera eraman dituen edo parte hartu duen ekintzen laburpen batekin osatu ditugu. Zuei esker, aniztasuna eta inklusioa gogoan izan dituzuelako, zuek antolatutako ekintzetan parte hartu ahal izan dugu. Hartu itzazue bi orri hauek gure esker ona adierazteko era bat bezala.



Azken orrietako laburpen bat

Leku publikoetan ipintzeko OPARI emango dugu

Sentsibilizazioa denez helburua, gure bailarako ahal den leku publiko gehienetan nahiko gure egutegia eskegi.

Hau lortzeko gure bailarako haurreskola, ikastetxe, zaharren egoitza, udal, anbulategi, saltoki, taberna, jatetxe,... guztietan DOAN emango dugu, bai bai, DOAN.

Horrela 2020 urte osoan zehar herritar guztiengandik gertu izango gara eta aniztasunaren normalizaziorantz bidean beste pauso bat emango dugu.



ABENDUAK 15 PBO EGUNAA

Data: 2019-ko Abendua

Datorren igandea Abenduak 15 Paralisi Brakial Obstetrikoa (PBO) pairatzen duten pertsonen eguna da. Dakizuen bezala elkartean badugu aniztasun funtzional hau duen pertsona bat, horregaitik ondorengo ekimena martxan jarri nahi dugu:

Pertsona huen ametsa besoak normaltasunez mugitzea denez, besoak altxatuz "LAINOAK UKITU ARTE" esanez bideo bat grabatu eta guri bidaltzeko erronka jartzen dizuegu.

Hemen laburpen bideoa:





#mareaurdina

DOLUARI BURUZKO HITZALDIA

Data: 2019-ko Abendua

Gure bizitzaren momentu batean, gaixotasun, istripu edo haur bat horrela jaio delako, aniztazun funtzionala duen pertsona baten kargu geratzen gara eta inork ez gaitu horretarako prestatu. "...ETA ORAIN ZER?" galderari erantzuten saiatuko gara Abenduak 12-rako antolatu dugun hitzaldian. Galdu egingo duzu?

DOLUARI BURUZKO HITZALDIA

MAREA URDINA

-ren eskutik

- Eguna: Abenduak 12 **OSTEGUNA**
- Ordua: 18:30-tan
- Lekua: Basazabal Jauregia (**AZPEITIA**)
- Gaia: "...ETA ORAIN ZER?"

Gure bizitzaren momentu batean, gaixotasun, istripu edo haur bat horrela jaio delako, aniztazun funtzionala duen pertsona baten kargu geratzen gara eta inork ez gaitu horretarako prestatu.

"...ETA ORAIN ZER?" galderari erantzuten saiatuko gara.

- Hizlaria: **Irene Aranguren**
(Pausa Psikologia)



Hemen duzu hitzaldiaren bideoa:






Azpeitiko Gabonetako parke INKLUSIBOAGOA

Data: 2019-ko Abendua

Gabonetan ohikoa den bezala, Bertan Merkataritza Elkartek eta Udalak haurrentzako Gabonetako parkea jarriko dute Izarraitz pilotalekuan. Abenduaren 26, 27 eta 28an, goiz eta arratsaldean izango da. Aurtengorako hainbat aldaketa egingo dira, baina bada bat garrantzitsua: Marea Urdinakoekin elkarlanean aniztasun funtzionala dutenentzat lehentasun txartelak eta ordutegi berezi bat hitzartu dituzte.




Ordutegi bereziari dagokionez, abenduaren 26 eta 27an 15:00etatik 16:00etara bitartean aniztasun funtzionala dutenentzat soilik izango da irekita, ondoren herritar ororentzat izango da irekita. Abenduaren 28an, berriz, goizez izango da aukera hori, 10:00etatik 11:00etara.

Lehentasun txartelak, udaletxean

Saninazioetan barraketarako egin bezala iladetan lehentasun txartela eskuratzeko aukera ere izango dute. Txartela behar dutenek, dagoeneko egin dezakete eskaera udaletxean.

Hemen bideoa ikusgai:





MAREA URDINA PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS-ekin

Data: 2019-ko Abendua

Hasiera batetan gure egutegiak oparitzera joan behar ginen bakarrik, baina... azkenean mikroa utzi ziguten eta dantza eta dena egitera animatu ginen. Gora zuek!

Hemen laburpen bideoa:





MAREA URDINA EGUTEGIEN BANAKETA

Data: 2019-ko Abendua

2020 urteak hilabete oso "bereziak" izango ditu, horretaz jabetzeko banatu ditugu 2020 egutegi gure bailaran zehar. Egutegia jaso duten batzuk bere esker ona adierazteko argazki bat atera dute, guztiekin ondorengo bideoa egin dugu.

Dudarik gabe 2020-a INKLUSIOAREN urtea izango da.

Urte Berri On guztioi Marea Urdinatik!

Hemen laburpen bideoa:







3. PROIEKTU URDINAK

Beste hainbat proiektu aurrera eramaten edo elkarlanean ari gara. Atal honetan zerrendatzen ditugu:

Azkoitiko Igerilekuko irrisgarritasun plana





Ulertu Azkoitia eta Azpeitia piktogramen bitartez

MAREA URDINA ELKARTEA
Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioaren aldeko taldea

PROIEKTUA:
"ULERTU AZKOITIA PIKTOGRAMEN BITARTEZ"

Azkoitian planteatzen ditugun piktogramak eta erakinen adibide batzuk:

1. Udaletxea
2. Liburutegia
3. Osasun Etxea

Azpeitian planteatzen ditugun piktogramak eta erakinen adibide batzuk:

1. Udaletxea
2. Liburutegia
3. Trenaren Museoa

Dantza egokitua

Dantza probatzeko aukera paregabea

¿Te interesa probar el baile?

Born To Dance dantza eskolako den Jenny Calero Marea Urdinara gerturatu zen eta aniztasun funtzionala duen umeeekin zerbait egiteko gogoia adierazi zigun. Berarekin hitzegin ondoren, "froga" saio bat egitea pentsatu genuen, gure senideek dantza frogatu dezaten egun bat (larunbat goiz bat) eta hortik aurrera ikusiko genukeen jarraipena nola eman (ez dago inongo konpromezurik). Apuntatzen zarete? Horrela bada bete ondorengo galdetegia (aniztasun funtzionala duen pertsonaren datuak ipini mesedez)

La profesora de baile de la escuela de danza Jenny Calero se acercó a Marea Urdina y nos mostró su interés por hacer algo con nuestros familiares con diversidad funcional. Después de hablar con ella, acordamos realizar una sesión de "prueba" para que nuestros familiares pudiesen probar la danza. Sería un sábado a la mañana y a partir de ahí ya veríamos como seguir (o no).

Galdetegia betetzeko epea: Martxoak 15 (astebete)
Plazo para rellenar el cuestionario : 15 de Marzo (una semana)

Ekinoterapia



EKINOTERAPIA /EQUINOTERAPIA

Iaztik Marea Urdinako kideentzat EKINOTERAPIA saio batzuk prestatzeko lanean jardun dugu, helburua gertu dagoen leku batetan egitea zen, adibidez Sastarrainen, baina terapeuta falta zelako atzera bota beharra izan genuen.

Aurten, badirudi aukera izango dugula EKINOTERAPIA egin ahal izateko, Sastarrainen terapeuta bat ba omen dute eta.

Kurtsoa antolatu izateko (ordutegiak, beharrak,...) mesedez, ondorengo galderei erantzun:

Desde el año pasado estamos intentando organizar sesiones de EQUINOTERAPIA para los miembros de Marea Urdina. Lo que queríamos era que fuese en un sitio cercano, por ejemplo en Sastarrain, pero por falta de terapeuta lo tuvimos que aplazar.


Este año parece que hay probabilidades de que salga el curso de equinoterapia pues hay terapeuta en Sastarrain.

Para saber cuantos seríamos y que necesidades tiene cada niño/a, por favor, contesta a las siguientes preguntas:

***Obligatorio**

Erantzuteko epea: Urriak 10 Osteguna
Plazo: Jueves 10 de Octubre

Zinema irisgarria gorrentzat : Bukle magnetikoa



Señal de audio recibida por el micrófono

Amplificador

Usuarios con discapacidad auditiva

Bucle magnético






Deustoko Unibertsitatearekin Elkarlana



Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Marea Urdina FILMA eta ERAKUSKETAREN hedapena beste herrietara



EZAGUTU NAZAZU erakusketa

Lekua: Merkatu Plaza

Martxoak 27	17:00-20:00
Martxoak 28	10:00-14:30 17:00-20:00
Martxoak 29	11:30-14:30

#mareaurdina



Marea Urdina Eguna (atzeratua)





2020ko Ekaina
Marea Urdina Elkarte



Marea Urdinak eginiko publikazio honek “Creative Commons Reconocimiento-SinObrDerivada 3.0 Unported” lizentzia du